

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Krisialdian enpresen berrikuntza aztertuko dute udako ikastaro batean

*Gaurtik, ekainak 28, ekainaren 30era, hainbat enpresa berritzailek haien esperientziaren berri emango dute Iruñeko Condestable Jauregian*

Martes, 28 de junio de 2011

Gaurtik, ekainaren 28tik, datorren ekainaren 30era, ostegunera, "[¿Y por qué no? La innovación empresarial y también social](#)" udako ikastaroa egingo dute Iruñean, Condestable Jauregian. Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Enpresa Berritzaileak Sortzeko Unibertsitateko Laborategiak antolatu dute. Mintegiaren helburua enpresen eta gizartearen berrikuntzako metodologiaren eta esperientziaren berri ematea eta ezagutza eta gaitasun horiek hezkuntzan barne hartzeak duen garrantzia azpimarratzea da.

Alderdi horien inguruan jarduteko, ikastaroa hiru modulutan egituratu da, eta modulu bakoitza ikastaroaren egun bakoitzean garatuko da. Lehenengoaren gai nagusia enpresenberrikuntza da, eta horren helburua oso berritzaileak diren enpresen kasuak eta enpresak hasiera errazten duten bitartekoak ezagutzera ematea da. MTorres, Marque eta eMOTools enpresetako ordezkariak parte hartuko dute. Eguna amaitzeko, Amalio Reyk, azken enpresa horretako zuzendariak, tailer bat eskainiko du jarrera ekintzailea garatzen laguntzen duten tresnak aztertzeko.

Bigarren modulua gizarterako enpresei buruzkoa izango da batez ere, eta gizarterako enpresek eta horien proiektu berritzaileek gizarterari ematen dien balioa nabarmenduko dute. Esperientziak aurkeztu eta Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroak (CEIN) zuzenduriko eta gizartearen berrikuntzaren garapenera bideraturiko tailer praktikoa bat egingo da.

Azkenik, hirugarren modulua gai nagusia gizartearen berrikuntza eta jarrera sortzaileak bultzatzeko hezkuntzak duen eginkizuna izango da. José Manuel Pérez "Pericles" izango da pertsonaia nagusietako bat. Hark bultzatu du eskoletan jarrera ekintzailea eta Ashoka elkartearen gizarterako senior ekintzailea da. Ashoka elkarteak ere 2011ko Asturiasko Printzearen Saria jaso du berriki. Beste protagonista IDEO izango da; nazioartean diseinuaren eta berrikuntzaren aholkularitza garrantzitsuenetako bat da eta erakunde publiko eta pribatuei berritzen eta hazten laguntzen die batez ere.